

BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Egun hauetako gehiegikeriez aspertuta? Ba...

#IrauliGabonak



**EGUN HAUETAKO GEHIEGIKERIEZ ASPERTUTA?
BA... #IRAULIGABONAK**

**¿CANSADA DE LOS EXCESOS DE ESTAS FECHAS?
PUES... #VOLTEALANAVIDAD**

BIDEO LABURREN LEHIAKETA / CONCURSO DE VÍDEOS CORTOS
Info eta oinarriak / Info y bases: www.tipitapabagoaz.info
2500€ baino gehiago saritan / ¡Más de 2500€ en premios!

Bideo laburren lehiaketa, antolatu:

30 URTE
AÑOS

www.mugarikgabe.org



**TIPI-TAPA
BAGOAZ!**

Hacia vidas SOSTenibles

BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Egun hauetako gehiegikeriez aspertuta? Ba...

#IrauliGabonak

Esaten denez, Gabonak gehiegikerien garaia dira, eta hala da, planetan bizi garen pertsonen zati txiki batentzat bada ere: neurrigabeko bazkariak, gehiegizko afariak, edari kontsumo eta parranda ugari...

Baina badira bestelako neurrigabekeriak ere:

- Kolonien iragarki matxistak.
- Neurrigabeko kaleetako Gabonetako argiak.
- Gehiegizko orduak zentro komertzialetan bueltaka.
- Gehiegizko langostino jana Urtezahar gauean.
- Ama eta amonaren sukaldeko lan-karga handia, besteok lasai asko afal dezagun.
- Erosketa zentzugabeen gehiegikeria.
- Jostailu eta katalogo neurrigabeak, neskentzat panpina eta sukaldeekin eta mutilentzat pistola eta autoekin.
- Coca Cola edaten duen Santa Claus gehiegi.
- Kontsumo estres neurrigabea.
- Zaborrontzien aldamenean pilatutako kaxa eta plastiko neurrigabeak.
- Auto bidaia eta desplazamendu neurrigabeak...

Ez diezazutela ziria sartu! Hartu zure kamera edota sakelakoa eta bideo bidez kritikatu, salatu, parodia bilakatu edo barre egin gehiegikeria horietako baten edo bestelako neurrigabekeriaren aurrean; eta planteatu aldaketak, alternatibak edo proposamenak gure bizitzak jasangarriagoak izan daitezen.

Hona zenbait ideia:

- Kontsumoa edo energia aurrezteko eredu aldaketak.
- Etxeko eta pertsonen zaintza lanen banaketan aldaketak.
- Kontsumo arduratsuaren aukera, kontsumoaren aurkako jarrera, ekonomia komunitarioa edo tokikoa, ekonomia solidarioa...
- Tokiko elikaduraren aukera, ekologikoa, elikadura burujabetza.

Adibidez, Gabon hauetan bonbardatuko gaituzten publizitate kanpaina edo iragarkiren bat parodiatu edota barregarri utz dezakezu (kontrapublizitatea), kalean topatzen dituzun gehiegikeria guztiak graba ditzakezu... **Eman bide sormenari! Bakarka edo taldean egin dezakezu.**

Gure aldarrikapenei buruzko gauza gehiago jakin nahi baduzu, ikusi hemen gaitegiaren inguruko ideia bat egiteko eta orientatzeko balio dezaketen zenbait gai:

https://www.decrecimientoybuenvivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2017/03/manifiesto_tipitapa.pdf

Tipi Tapa Bagoaz kanpainaren aurkezpen bideoa: <https://youtu.be/HQn5GyPH1ZE>

BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Egun hauetako gehiegikeriez aspertuta? Ba...

#IrauliGabonak

LEHIAKETAREN OINARRIAK

2018ko abenduaren 12tik otsailaren 7ra izango da **#GabonakIrauli** “**TIPI-TAPA bagoaz: Hacia Vidas SOSTenibles**” kanpainako lehen film labur txapelketa.

1. PARTE HARTZEA doakoa izango da, eta munduko norbanako zein talde guztiei bideratua. Bakarka edo taldeka hartu ahalko da parte.
2. IRAUPENA. Lanen gehienezko iraupena 3 minutukoa izango da.
3. FORMATUA. Lanak “avi” edo “mp4” formatuan aurkeztu beharko dira.
4. HIZKUNTZA. Euskara edota gaztelera.
5. EKOIZPEN URTEA. 2016ko urtarriletik deialdia amaitu arte gauzatutako lanak jasoko dira.
6. DOKUMENTAZIOA. Lanekin batera ondorengo dokumentuak helarazi behar dira
 - a) Izen-emate fitxa
 - b) Lanaren 2 argazki edo irudi.
7. Izen-emate fitxa www.tipitabagoaz.info webgunetik deskargatu beharko da, eta info@decrecimientoybuenvivir.info helbide elektronikora bidali. Film laburrak ez dira entregatutzat emango fitxarik ezean.
8. ONARPEN EPEA. Lanak onartzeko epea 2018ko abenduaren 6an hasiko da, eta 2019ko otsailaren 6an bukatu, 23:59an.
9. ENTREGA MODUA. Internetetik helarazi ahalko dira lanak, Wetransfer edo Nextcloud bezalako artxiboen bidalketa sistemen bidez.
10. AURKEZ DAITEKEEN LAN KOPURUA. Talde edo pertsona bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahalko ditu.
11. Antolakuntzak eskubidea izango du aukeratutako gaiekin zerikusirik ez duten lanak, kalitate baldintza teknikoak betetzen ez dituztenak, edota bestelako arrazoiengatik lehiaketako baldintzak betetzearekiko zalantzak sortzen dituzten obrak kanporatzeko.
12. EPAIMAHAIA. Mugimendu sozialetako (feminista, hazkundearen kontrakoa eta abar) kideek eta komunikazio alorreko profesionalak aukeratuko dute Epaileen Saria.
13. SARIAK. Ikus-entzunezko irabazleek ondorengo sariak jasoko dituzte:
 - 13.1.1. Epaileen 1.saria: 1.000€
 - 13.1.2. Epaileen 2.saria: 750€
 - 13.1.3. Epaileen 3.saria: 450€
 - 13.1.4. Publikoaren saria: 400€

Publikoaren Saria Facebooken “ATSEGITE” gehien eskuratu dituen lanak jasoko du. Bozketa

BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Egun hauetako gehiegikeriez aspertuta? Ba...

#IrauliGabonak

fasea 2019ko otsailaren 8tik 28ra izango da.

14. Antolakuntza ez da Youtube, Facebook edo Instagramen funtzionamendutik eratorritako intzidentzien erantzule egingo, ezta lanetan gerta litekeen egiletza eskubideen huts egite posibleena ere.

15. Partaideek antolakuntzari aurkeztutako film laburrak komunikatzeko, erreproduzitzeko eta zabaltzeko eskubidea ematen diete, irabazi asmorik gabe kultur jardueretan, hezkuntzan eta trebakuntza saioetan erabili ahal izateko.

16. Lehiaketan parte hartzeak aipatutako oinarriak onartzea dakar.

17. Aurkeztutako lanen lizentzia honakoa izango da: Lizentzia Publiko Orokorra, Creative Commons edo Creative Commons-Aitortu-Ez komertziala-Berdin Partekatu (CC-BY-SA)